



Nafarroako foru komunitateko
administrazio elektronikoa
dela eta, herritarrek dauzkaten
hizkuntza- eskubideei buruzko
txostena, nafarroako
parlamentuak eskatua



**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO
ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA DELA ETA,
HERRITARREK DAUZKATEN HIZKUNTZA-
ESKUBIDEEI BURUZKO TXOSTENA,
NAFARROAKO PARLAMENTUAK ESKATUA



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

Izenburua: **Nafarroako foru komunitateko administrazio elektronikoa dela eta, herritarrek daukaten hiskuntza-eskubideei buruzko txostena, Nafarroako parlamentuak eskatua.**

Argitaratzailea: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundea

© 2011ko, Azaroa

Diseinua eta maquetazioa: Carlos Fernández Prego

Inprimatzailea:

Lege gordailua:

%100 birziklatua, erabat klororik gabea eta bizi ziklo osoan ingurumen inpaktu gutxikoa den paperean inprimatua, ondoko ziurtagiriak dituena: Blauer Engel, Nordic Swan eta Europako Batasuneko etiketa ekologikoa.



0

AURKIBIDEA



**Defensor del Pueblo
de Navarra**

Nafarroako Arartekoa

AURKIBIDEA

I. SARRERA TXOSTENAREN ARRAZOA ETA XEDEA.	11
II. AZTERLANAREN METODOLOGIA.	17
III. HIZKUNTZAREN ARLOA DELA ETA, NAFARROAKO ARARTEKOAK NAFARROAKO GOBERNUAREN WEBGUNEARI BURUZ JASO DITUEN KEXAK ETA KONTSULTAK.	23
3.1. kexak.	23
3.2. Kontsultak.	28
3.3. Gomendioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak. .	29
3.4. Ofiziozko jarduketak eta txosten bereziak.	31
IV. WWW.NAVARRA.ES WEBGUNEARI BURUZKO ANALISIA.	35
4.1. Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuaren txostena.	35
4.2. Webguneari buruzko ikuskatzea.	43
V. APLIKATZEKO DEN LEGE ESPARRUA.	57
VI. ONDORIOAK, GOGORAZPENAK ETA IRADOKIZUNAK.	63
I. ERANSKINA: ZERBITZUEN KATALOGOA EUSKARAZ	71
II. ERANSKINA: 2011ko EKAINEKO ANALISIA	
A) MAILEN ARABERAKO ANALISIA	77
B) DEPARTAMENTUEN ARABERAKO ANALISIA	109
III. ERANSKINA: 2011ko IRAILEKO MAILEN ARABERAKO ANALISIA ...	123

1

SARRERA.
TXOSTENAREN ARRAZOIA
ETA XEDEA



**Defensor del Pueblo
de Navarra**

Nafarroako Arartekoa

1. SARRERA. TXOSTENAREN ARRAZOIA ETA XEDEA.

2010eko abenduaren 29an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak honako erabakia hartu zuen, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak proposatuta:

“Nafarroako Arartekoari eskatzea txosten bat egin dezan, zeinean aztertuko baitu zein den herritarren hizkuntza eskubideen egiazko egoera Nafarroako Foru Komunitatearen administrazio digitala dela-eta (bereziki www.navarra.es webgunean).”

Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eginiko idazkian parlamentu-taldeak adierazitako zioen arabera, txosten horren eskaria oinarritzen da administrazio publikoek legea noraino betetzen duten aztertze beharrez, bai eta Nafarroako herritarrek dauzkaten aukera errealak ezagutzeko beharrez ere, administrazio digitalari buruzko informazioa jasotzeko garaian, zerbitzuak euskaraz erabiltzeko garaian eta izapideak hizkuntza horretan egiteko garaian .

Eskari horri erantzuteko, gai bakarreko txosten hau egin da. Haren abiapuntua dira, batetik, Euskarari buruzko

abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legetik heldu diren herritarren hizkuntza-eskubideei buruz dagoen araupetzea –berariaz erreparatuz euskara administrazio publikoetan, bereziki Nafarroakoetan, erabiltzeari buruzko arauei–, eta, bestetik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legea.

Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak honakoa dio: Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, eta Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubide eta libertateak defenditzeko eta hobeki babesteko hautatzen du Nafarroako Parlamentuak. Lege testu bereko 16. artikuluko d) letrak ahalmena ematen dio Arartekoari bere eskumeneko arloetan txostenak egiteko, Nafarroako Parlamentuak eskatuta.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeko lehenengo xedapen gehigarriak ezartzen du honako eginkizunak dagozkiola Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari: foru lege horretan herritarrei aitortutako eskubideen eraginkortasuna zaintzea; eskubide

horien urraketak direla-eta gertatzen diren kexei erantzutea; eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde publikoei behar diren iradokizunak eta proposamenak egitea, hain zuzen ere Nafarroako Arartekoari buruzko Foru Legean ezarritako moduan eta, orobat, ezarritako ondorioekin.

Azaldutakoari erreparatuta, txosten hau egin dugu. Lau ataletan egituratuta dago: lehenengoan, hizkuntzaren arloa dela-eta Nafarroak Gobernuko webguneari buruz Nafarroako Arartekoak jaso dituen kexak eta kontsultak zehazten dira (III. zenbakia); bigarrenean, euskarak www.navarra.es webguneko edukietan daukan ezarpenari buruz bai Nafarroako Gobernuak, bai Nafarroako Arartekoaren erakundeak eginiko analisisien emaitzak islatzen dira (IV. zenbakia); hirugarrenean, aplikatzekoa den lege-esparrua deskribatzen da (V. zenbakia); eta laugarrenean, azkenik, azterlana egin ondoren eman diren ondorioak, gogorarazpenak eta iradokizunak islatzen dira (VI. zenbakia).



2

AZTERLANAREN METODOLOGIA



**Defensor del Pueblo
de Navarra**

Nafarroako Arartekoa

2. AZTERLANAREN METODOLOGIA.

Nafarroako Parlamentuak eskatutako txostena egiteko, 2011ko urtarrilaren 14an, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari eskatu zitzaion www.navarra.es webguneari buruzko honako informazioa igor zezan, 2011ko martxoaren 15a baino lehen:

17

- a) Aipatutako atariko gaztelaniazko bertsioaren “orri” kopurua, “orritzat” harturik pantailan gertatzen den aldaketa bakoitza, erabiltzaileak informazio-guneetako batean “klik” egiten duenean. Ondorio horretarako, orri nagusia edo hasierakoa (home) lehenengo orritzat joko da.
- b) Aipatutako atariko euskarazko bertsioaren orri kopurua, irizpide berak erabiliz.
- c) Gaztelaniazko bertsioiko orrietatik zenbat dauden guztiz edo ia guztiz euskarara itzulita.
- d) www.navarra.es webguneko orrietatik gaztelaniaz agertzen diren eta euskarara itzulita dauden orrien zerrenda, haien izenekin.

- e) Datua baldin badago, edo kalkulatu baldin badaiteke: Nafarroako Gobernuaren gaztelaniazko web atariko eduki osoari erreparatuta, euskaraz dagoenak egiten duen ehunekoa.
- f) On line eskaintzen diren eta herritarrei beren ordenagailuekin izapideak egiteko aukera ematen zaien “zerbitzuen” orriaren barruan: zenbat zerbitzutan egin daitezken izapideak euskaraz, guztiz edo ia guztiz, eta horiek zerbitzuen guztizkoan ehuneko zenbat diren.
- g) Herritarrek izapideak euskaraz guztiz egin ahal dituzteneko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako zerbitzuen eta erakunde publikoen zerrenda izenduna; eta izapideak soilik gaztelaniaz egin ahal direneko zerbitzuen zerrenda.
- h) Daturik baldin badago, herritarrek 2009a eta 2010ean on line zerbitzuen bitartez eginiko izapideen kopurua, adieraziz, zerbitzu horietako bakoitzeko zenbat egin diren gaztelaniaz eta zenbat euskaraz, hizkuntzak bereiziz.

i) Nafarroako Gobernuko web zerbitzuen atariko euskarazko edizioa gaztelaniazko edizioari mailaz maila egokitzeko egin diren denbora-aurreikuspenak, ahal diren xehetasun guztiekin. Izan ere, betebeharrak horixe ezartzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeko 42.3 artikulua.

j) Nafarroako Parlamentuak eskatutako txostena egiten laguntzeko interesekotzat edo egokitzen jo daitekeen beste edozein informazio.

Eskatutako txostena 2011ko irailaren 22an igorri zitzaion erakunde honi.

Beste aldetik, Nafarroako Parlamentuaren eskaria betetze aldera, Nafarroako Arartekoaren erakundeak berak honako lanak egin zituen:

- Alde batetik, hizkuntza eskubideen eragin-kortasunari buruz jasotako kexak eta kontsultak aztertzea, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio digitala dela eta.

- Bestetik, Nafarroako Gobernuaren webguneko euskarazko bertsioari buruzko analisi bat, 2011ko ekainaren 30ean itxi zena. 2011ko irailaren 15ean, beste analisi bat egin zen, webgunearen egungo egoera eta ekainaren 30ean jasotako datuak alderatzeko.



3

HIZKUNTZAREN ARLOA DELA
ETA, NAFARROAKO
ARARTEKOAK NAFARORAKO
GOBERNUAREN WEBGUNEARI
BURUZ JASO DITUEN KEXAK ETA
KONTSULTAK



**Defensor del Pueblo
de Navarra**

Nafarroako Arartekoa

3. HIZKUNTZAREN ARLOA DELA ETA, NAFARROAKO ARARTEKOAK NAFARORAKO GOBERNUAREN WEBGUNEARI BURUZ JASO DITUEN KEXAK ETA KONTSULTAK.

3.1. KEXAK.

23

Hamasei kexa aurkeztu zaizkio Nafarroako Arartekoari 2009. eta 2010. urteetan eta 2011. urteko lehenengo zortzi hilabeteetan, Nafarroako Gobernuaren webgunean euskarazko edukiak falta izateari buruz.

A) **2009. urtean**, Nafarroako Gobernuaren webguneari buruz aurkeztutako kexak, elebitasunaren gaiari zegozkionak, bost izan ziren, eta webaren euskarazko bertsioan informazio osoa falta izateari buruzkoak eta bertsio horretan administrazio elektronikoaren izapideren bat ezin egiteari buruzkoak izan ziren.

Kexak honako departamentuetako webguneko edukiei buruzkoak izan ziren: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua; Hezkuntza Departamentua; eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua.

Kexa guztiak Hizkuntza Eskubideen Behatokia fundazioak aurkeztu zituen. Fundazio horrek dio gai horri buruz herritarrek aurkezten dizkioten kexak jasotzen dituela.

Honakoa da kexen edukiari buruzko laburpena:

- Nafarroako webgunearen euskarazko bertsioa gaztelaniazko bertsioaren laburpen bat baizik ez da. Hartara, webgunearen eduki osoa ikusi ahal izateko, gaztelaniazko bertsiora jo beharra dago.
- 2009/2010 ikasturteko irakaskuntza ertainetako irakasle lanpostuen esleipenari buruzko ekitaldi publikoaren gaineko informazioa gaztelaniaz baizik ezin da eskuratu.
- Irakaskuntza ertainetako irakasleek bete beharreko inprimakiak ezin dira euskaraz eskuratu: nomina osatzeko fitxa pertsonala, bizi- eta istripu-asegururako fitxa eta aseguru-polizari buruzko informazioa.
- Nafarroako Gazteriaren Institutuaren www.dimejoven.net webgunea gaztelaniaz baizik ez dago.

- Nafarroako Eskola Kontseiluaren webgunearen euskarazko bertsiorik ez dago.

B) Elebitasuna dela eta, **2010. urtean**, hamar izan ziren Nafarroako Gobernuko webguneari buruz aurkeztutako kexak. Nagusiki, honako gaiei buruzkoak izan ziren: euskarazko bertsioan edukiak falta izatea; eta izapideak euskaraz ezin egitea, inprimakiak, eskabide orokorrak eta ziurtagiriak hizkuntza horretan ezin eskuratzearen ondorioz edo, haiek eskuratzeko webgunearen euskarazko bertsioak ez funtzionatzearen ondorioz.

25

Kexak honako departamentuetako webguneko edukiei buruzkoak izan ziren: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua; Hezkuntza Departamentua; eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua. Hezkuntza Departamentuari dagozkionak nabarmendu behar dira.

Kexa guztietatik, zortzi Hizkuntza Eskubideen Behatokia fundazioak aurkeztu zituen, eta beste biak herritarrek aurkeztu zituzten.

Honakoa da haien edukiari buruzko laburpena:

- Euskara gutxi erabiltzea Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak bere jarduketan esparruetan kudeatzen dituen zerbitzu eta prestazioei buruz Nafarroako Gobernuaren webgunearen bitartez herritarrei eskaintzen zaien informazioan: adineko pertsonak, mendekotasuna, ezgaitasuna...
- Eskabide orokorrak euskaraz ezin erabiltzea www.navarra.es webgunean.
- 2010. urteko irakaskuntza ertainetako oposizioetara aurkezteko ezarritako epeari buruzko informaziorik ez egotea Hezkuntza Departamentuaren webguneko euskarazko bertsioan.
- Euskaraz ezin egitea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokion aitorten-proposamena zein hizkuntzatan jaso nahi den adierazteko izapidea (bi kexa).
- Gaztelaniaz baizik ez egotea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak bere webgunearen bitartez ematen duen ziurtagiria, zerga-betebeharren ordainketan egunean egoteari buruzkoa.

- Gaztelaniaz baizik ez egotea nominarako eta bizi- eta istripu-aseguruaren polizarako irakasleek bete beharreko inprimakiak.
- Euskaraz ezin eskuratzea irakasleen destinoen esleipenari buruzko informazioa.
- Hezkuntza Departamentuaren albisteak gaztelaniaz baizik ez egotea.
- www.navarra.es webguneko edukiak itzultzeko lana eta eduki horiek webgunean kargatzeko lana kontratatzeko lizitazioaren baldintzetan jasotako exijentzia bidegabea, lizitatuzaileek dokumentazioa gaztelania hutsez idatzita aurkezteari buruzkoa.

C) **2011. urteko** lehenengo bederatzi hilabeteetan, kexa bakarra jaso da Nafarroako Gobernuaren webguneari buruz, elebitasunari dagokionez. Zehazki, “Entornos de Navarra” aldizkaria gaztelania hutsez zabaltzeari buruzkoa da. Kexa hori Hizkuntza Eskubideen Behatokia fundazioak aurkeztu zuen.

3.2. KONSULTAK.

Sei izan dira Nafarroako Gobernuaren webgunearen edukiei eta webgune horren euskarazko bertsioari buruz egin diren kontsultak. Guztiak ere Hizkuntza Eskubideen Behatokia fundazioak egin ditu.

Horietan guztietan kontsultak sustatu dituen entitateari erantzun zaio ezen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeko 42.3 artikulua arabera, Nafarroako Gobernuaren web zerbitzuen atariak gaztelaniaz eta euskaraz erabilgarri egon behar duela, eta bi hizkuntza horietan egiten diren edizioak bereiz egin behar direla, herritar bakoitzak egokien jotzen duena erabil dezan. Hori, halere ez da eragozpena izanen Administrazioa euskarazko edizioa mailaz maila egiten joan dadin, euskarari buruzko foru legedian ezarritakoari jarraituz.

3.3. GOMENDIOAK, IRADOKIZUNAK ETA LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENAK.

Kexak izapidetu ondoren, Nafarroako Arartekoak honako iradokizun, gomendio eta legezko betebearren

gogorazpenak egin dizkio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari:

1. Bete dadila Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko Foru Legeko 42.3 artikuluan ezarritakoa, eta haren indarrez, Nafarroako Gobernuko web zerbitzuen ataria gaztelaniaz eta euskaraz eskuragarri egon dadila. Hori, dena den, ez da eragozpena izanen egokitze hori mailaz maila egin dadin.
2. Herritarrek, oro har, erabiltzekoak diren inprimakiak –esate baterako, eskabide orokorrak egiteko ereduak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenerako inprimakiak eta beste batzuk Foru Komunitateko Administrazioaren webgunearen bitartez bai, euskaraz, bai gaztelaniaz eskuratu ahal daitezela.
3. Konponbidea eman dakiela herritarrek eskabide orokorrak euskaraz erabiltzea, batzuetan, eragotzi edo zaildu dituzten arazo teknikoei.

4. Kontratu administratiboetako baldintza teknikoan orrietan, ez daitezela sar lizitatzailleek dokumentazioa euskaraz aurkeztu ahal izatea eragozten duten aurreikuspenak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lau gomendio edo iradokizun horiek onartu zituen. Haiek betetzen direla egiaztatze aldera, joan den urriaren 3an, erakunde honek honakoa egiaztatu zuen:

30

a) Euskarri elektronikoan erabilgarri dauden erabilera orokorreko ereduak dagokienez:

- Eskabide orokorraren ereduak eskuragarri dago gaztelaniaz, euskaraz eta ele bietan. Hala eta guztiz ere, antzeman dugu soilik eskabide orokorrerako gaztelaniazko eta ele bietako aukerak daudela ikusgai. Alabaina, Ogasunaren inprimakien sorgailuan, gaztelaniaz dago eskabide orokorraren ereduak.
- Ogasuneko inprimakien sorgailuak inprimakiak gaztelaniaz eta euskaraz eskaintzen ditu, edizio bereizietan.

b) Kontratuetak baldintza teknikoetarako buruzko orrietarako dagokionez, Nafarroako Kontratazio Atarian argitaraturiko azken hiru lizitazio-orrien lagin bat aztertu dugu, eta ez dugu antzeman inongo aurreikuspenik ezarri denik lizitatuzaileek dokumentazioa euskaraz aurkeztea eragozten duenik.

3.4. OFIZIOZKO JARDUKETAK ETA TXOSTEN BEREZIAK.

Nafarroako Arartekoaren erakundeak ofiziozko bi jarduketa egin ditu: bata 2009an eta bestea 2010ean. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legearen garapenaren eta aplikazioaren maila egiaztatzerako zuzendu ziren.

Bi kasuetan, egiaztatu da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak neurriak sustatzen dituela administrazio elektronikoa mailaz maila ezartzen joateko.

Herritarren hizkuntza eskubideen egoerari dagokionez, erakunde honek behin eta berriz gogorarazi dio Administrazioari Nafarroako Gobernuaren web zerbitzuen atariak gaztelaniaz eta euskaraz egon behar duela, edizio

bereizietan, herritar bakoitzak egokien jotzen duena erabil dezan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin daukan harremanetan, arestian aipatutako apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeko 42.3 artikuluan ezarritako moduan, betiere ezertan eragotzi gabe arau horretan egokitzea mailaz maila egiteari buruz aipatzen den printzipioa.

Gogorazpen hori erakunde honek eginiko “Elebitasunari eta herritarren hizkuntza eskubideei buruzko txostenean” ere sartu zen. Txosten hori Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak eskatu zuen 2009ko ekainaren 1ean, eta 2010eko martxoaren 2an aurkeztu zitzaion parlamentu horretako Foru Araubideko Batzordeari.



4

WWW.NAVARRA.ES
WEBGUNEARI BURUZKO
ANALISIA



**Defensor del Pueblo
de Navarra**

Nafarroako Arartekoa

4. WWW.NAVARRA.ES WEBGUNEARI BURUZKO ANALISIA.

4.1. LEHENDAKARITZAKO, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BARNEKO DEPARTAMENTUAREN TXOSTENA.

Txosten honen aurrekarietan adierazi den bezala, 2011ko urtarrilaren 14an, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari eskatu zitzaion informazioa igor zezala Nafarroako herritarrek administrazio digitalaren bidetik informazioa euskaraz jasotzeko, zerbitzuak euskaraz erabiltzeko eta izapideak hizkuntza horretan egiteko dauzkaten aukera errealei buruz.

35

Txostenean, Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuak igorritakoan, honakoa esaten da:

“Idazki bat igorri zenidan txosten bat egiteko behar zenuen informazioa eskatzeko. Txostenean aztertu behar zenuen zein den herritarren hizkuntza eskubideen egiazko egoera Nafarroako Foru Komunitatearen administrazio digitala dela-eta (bereziki www.navarra.es webgunean). Bada eskari horri erantzuteko, hauxe ematen dizut jakitera:

Informazio eskaria honako galderetan zehazten da:

- a) *Aipatutako atariko gaztelaniazko bertsioaren “orri” kopurua, “orritzat” harturik pantailan gertatzen den aldaketa bakoitza, erabiltzaileak informazio-guneetako batean “klik” egiten duenean. Ondorio horretarako, orri nagusia edo hasierakoa (home) lehenengo orritzat joko da.*
- b) *Aipatutako atariko euskarazko bertsioaren orri kopurua, irizpide berak erabiliz.*
- c) *Gaztelaniazko bertsioiko orrietatik zenbat dauden guztiz edo ia guztiz euskarara itzulita.*
- d) *www.navarra.es webguneko orrietatik gaztelaniaz agertzen diren eta euskarara itzulita dauden orrien zerrenda, haien izenekin.*
- e) *Datua baldin badago, edo kalkulatu baldin badaiteke: Nafarroako Gobernuaren gaztelaniazko web atariko eduki osoari erreparatuta, euskaraz dagoenak egiten duen ehunekoa.*

- f) *On line eskaintzen diren eta herritarrei beren ordenagailuekin izapideak egiteko aukera ematen zaien “zerbitzuen” orriaren barruan: zenbat zerbitzutan egin daitezken izapideak euskaraz, guztiz edo ia guztiz, eta horiek zerbitzuen guztizkoan ehuneko zenbat diren.*
- g) *Herritarrek izapideak euskaraz guztiz egin ahal dituzteneko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko zerbitzuen eta erakunde publikoen zerrenda izenduna; eta izapideak soilik gaztelaniaz egin ahal direneko zerbitzuen zerrenda.*
- h) *Daturik baldin badago, herritarrek 2009a eta 2010ean on line zerbitzuen bitartez eginiko izapideen kopurua, adieraziz, zerbitzu horietako bakoitzeko zenbat egin diren gaztelaniaz eta zenbat euskaraz, hizkuntzak bereiziz.*
- i) *Nafarroako Gobernuko web zerbitzuen atariko euskarazko edizioa gaztelaniazko edizioari mailaz maila egokitzeko egin diren denbora-aurreikuspenak, ahal diren xehetasun guztiekin. Izan ere, betebeharrak horixe ezartzen du Nafarroako Foru*

Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeko 42.3 artikulua.

j) Nafarroako Parlamentuak eskatutako txostena egiten laguntzeko intereskotzat edo egokitzat jo daitekeen beste edozein informazio.

Hasierako argipen modura, adierazi beharra dago ezen, eskaria berariaz eta soilik www.navarra.es web atariari buruzkoa bada ere, ondoren ematen ditugun erantzunetan honakoa bildu ditugula: Turismo Ataria (aurrekotik bereizita dagoena) eta cf.navarra.es ataria, zeina Nafarroako antzinako ataria baita, web arauari egokitu gabea (horretatik, izan ere, oraindik ere web orri batzuk aktibo daude, nahiz eta haiek desagerrarazteko joera dagoen).

Bestalde, eta beste atari batzuk direnez, ez ditugu sartu Hezkuntza Departamentuko zerbitzarien datuak, "pnte" delakoaren helbide eta orriekin eta ikastetxe, irakasle eta abarretarako guneekin. Datu horiek, izan ere, departamentu horren ardura duen unitateak baizik ez dauzka.

Aurretik kontuan hartu beharreko beste gogoeta bat da datuak ematen ditugun atari horiek bizirik daudela eta etengabe gaurkotzen direla; horrenbestez, une jakin bateko kontabilizazioa egin beharra dago, baina jakinda eskuratu diren zifrak hurrengo unerako jada gaurkotasunik gabekoak izanen direla, nahiz eta estimazio bat egiteko, erreferentzia orokor gisa, baliagarriak izan. Idazki honetan ematen ditugun datuak 2011ko otsailaren 7tik 11rako astean eskuratu ziren.

1. a), b), c) eta e) galderei erantzuteko (euskarazko eta gaztelaniazko orrien eta itzulitakoen kopurua eta ehunekoa) honako taula egin dugu:

Orriak	Gaztelani	Euskara	Ehunekoa
navarra.es (BON/NAO kenduta) + Turismo Ataria	90.738	24.715	% 27,24
cfnavarra	37.518	441	% 1,18
BON / NAO	350.000	350.000	% 100,00
Guztira	478.256	375.156	% 78,44

Argitasun batzuk:

- *Ez dago euskarazko orririk gaztelaniaz ez dagoenik; horrenbestez, gaztelaniatik euskarara itzulitako orrien kopurua euskarazko orrien kopuru bera da.*

- *navarra.es-en datuetan, Zerbitzuen Katalogoa ere sartzen da (horri buruz, beste zehaztasun batzuk emanen ditugu aurrerago).*
- *Nafarroako Aldizkari Ofizialaren (NAO) datuak estimazio eta estrapolazio bidez lortu dira (ez dago haiek zenbatzeko bide zorrotzagorik). Kalkulatu da 1996ko maiatzaren 1etik hileko 1.800 orriko hazkundera egon dela. NAO osoa bai gaztelaniaz, bai euskaraz dago.*
- *Gainerako datuak bilaketak egiteko eta indizeak sortzeko erreminta baten bidez lortu dira. Erreminta horrek indizeetan sartu beharreko elementu guztiak zenbatzen ditu.*

2. d) galderari erantzuteko (euskarazko itzulpena duten orrien zerrenda eskatzen da), Exceleko bi fitxategi erantsi ditugu:

“Paginas de PORTALES DE NAVARRA Y TURISMO en euskera.xls”, non navarra.es atarian (17.914) eta Turismo Atarian (6.801) euskaraz dauden orri guztien zerrenda ageri baita, orrialde bereizietan.

“Paginas del CFNAVARRA en euskera.xls”, non beste orrialde batean euskarazko orrien zerrenda (441) ageri baita.

Ez dira erantsi BON/NAOko euskarazko orriak (ehunka mila direlako eta jadanik aipatu dugulako NAO osoa euskarara itzulita dagoela).

41

3. Zerbitzuen Katalogoari buruzko f) galderari erantzuteko, honako datuak eman behar ditugu:

Zerbitzuen katalogoaren fitxak	Gaztelani	Euskara	Ehunekoa
Zerbitzu irekiak	856	23	% 2,69
Zerbitzu itxiak	760	44	% 5,79
Guztira	1.616	67	% 4,15

Argitasun batzuk:

- Zerbitzu irekiak dira datuak lortzeko unean (2011ko otsailaren 8a) aurkezteko epea zabalik dutenak*
- Zerbitzu itxiak dira aurkezteko epea amaituta dutenak baina oraindik ere atarian arrazoi batzuk tarteko (emaitzak argitaratzea, erreklamazioak*

aurkezteko epea eta abar) argitaratuta jarraitzen dutenak.

- *Ez dira sartu lehendik argitaratu ziren baina jada, guztiz iraungi direlako, ezkutatu diren zerbitzuak.*

4. g) *galderari erantzuteko, Exceleko fitxategi bat erantsi dugu (“Fichas del CATALOGO DE SERVICIOS en euskera y castellano.xls”). Fitxategi horretan, orri berezietan eskaintzen dira batetik euskaraz argitaratzen diren zerbitzuen zerrenda eta, bestetik, soilik gaztelaniaz argitaratzen diren zerbitzuen zerrenda.*

5. h) *galderari erantzuteko (herritarrek eginiko izapideei buruzkoa da), honako datuak eman behar ditugu:*

Herritarrek on line eginiko izapideak	Gaztelani	Euskara	Ehunekoa
2009ko izapideak	6.960	20	% 0,29
2010eko izapideak	17.437	20	% 0,11

Argitasun batzuk:

- *Datuak Erregistro Orokor Elektronikoko izapideei buruzkoak dira. Ez dago daturik zerbitzu edo jarduketa zehatz batzuk egiteko, neurrira egindako sistemen bitartez eta erregistro horretatik pasa gabe, dauden gainerako aplikazio edo formularioei buruz.*

6. i) galderari dagokionez (denbora-aurreikuspen zehatzei buruzkoa da), adierazi beharra dago ezinezkoa dela horri buruzko denbora-aurreikuspen zehatza eta xehea egitea, honako arrazoiengatik: batetik, zerbitzu mota batzuen edukiak gaurkotzeko dinamismo handia eta argitalpenak moduari eta denborari dagokienez sinkronizatzeko exijentziak; eta, bestetik, edukiak eta tresnak egoki editatzeko, administratzeko eta osatzeko premiatik eta kudeaketarako aplikazioen interfazeak itzultzeko premiatik heldu diren aldagaiak.

4.2. WEBGUNEARI BURUZKO IKUSKATZEA.

Txosten honen aurrekarietan azaldu den bezala, Nafarroako Arartekoak berak bi analisi egin ditu Nafarroako Gobernuko webguneari buruz: lehenengoa, 2011ko ekainaren 30ean itxi zen; bigarrena, berriz, 2011ko irailaren 15ean amaitu zen.

Erakundeko zerbitzu teknikoek www.navarra.es webgunearen gaineko egiaztatze exhaustiboa, orriz orrikoa, egin ondoren, honako emaitzak lortu ziren:

A) Nafarroako Gobernuaren webguneko Informazioa egituratuta dagoen bost ataletako (Nafarroa, Zerbitzuak, Gaiak, Gobernua eta Aktualitatea)¹ edukiak laugarren mailaraino analizatu ondoren, 2011ko ekainaren 30ean, honakoa zen emaitza:

a) Nafarroako Gobernuaren webgunetik eskainitako informazioa (Nafarroa, Gaiak, Gobernua, Aktualitatea):

- Nafarroa:

- Atal horretako edukia eskuragarri dago, kasu gehienetan, gaztelaniaz eta euskaraz, edizio berezietan. Gaztelaniaz dauden 65 orrietatik² (“beste entitate batzuei” buruzko informazioa kontuan izan gabe), 61ean euskarazko korrespondentzia guztizkoa da (% 95), eta atal

1. Aipatu beharra dago euskarazko edizioko bosgarren mailatik aurrera, esteka ugari agertzen direla gaztelania hutsez idatzita dauden orrietara jotzen dutenak.

2. “Orritzat” ulertzen da informazio berrirako sarrera bakoitza, leiho berria irekitzen denekoa.

batean korrespondentzia partziala dago (% 1,5). Gaien multzo handiari dagokio, non korrelazio handiagoa antzematen baita euskarazko edizioaren eta gaztelaniazko edizioaren artean.

- Euskarazko edizioko orrietan esteka batzuk badaude gaztelaniazko edizioko orrietara bidaltzen dutenak; horrenbestez, orri horiek ez daude euskaraz.

- Gaiak:

- Atal honen edukiak 340 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 82tan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 24); 22 ataletan, berriz, korrespondentzia partziala da (% 6).
- Euskarazko edizioko orrietan esteka batzuk badaude gaztelaniazko edizioko orrietara bidatzen dutenak; horrenbestez, orri horiek ez daude euskaraz.
- Eduki batzuen euskarazko bertsioa laburragoa da gaztelaniazko bertsioa baino.

- Gobernua:

- Atal honen edukiak 93 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 27tan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 29); 3 ataletan, berriz, korrespondentzia partziala da (% 3). Atal horretan, ez da sartu Nafarroako Gobernuko departamentuei buruzko informazioa.
- Orri batzuetan –esate baterako “Enpresa Korporazio Publikoari” buruzkoan–, eduki guztia gaztelania hutsez dago.
- Euskarazko edizioko orrietan esteka batzuk badaude gaztelaniazko edizioko orrietara bidatzen dutenak; horrenbestez, orri horiek ez daude euskaraz.
- Departamentuetako edukiak:
 - Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua: Atal honen edukiak 20 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 11tan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 55); atal

batean, berriz, korrespondentzia partziala da (% 5).

- Ekonomia eta Ogasun Departamentua: Atal honen edukiak 22 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 10etan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 45); atal batean, berriz, korrespondentzia partziala da (% 5).

- Erakundeekiko Harremanetarako eta Eledunaren Departamentua: Atal honen edukiak 18 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 10etan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 61); atal batean, berriz, korrespondentzia partziala da (% 5).

- Toki Administrazioiko Departamentua: Atal honen edukiak 19 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 10etan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 52); atal batean, berriz, korrespondentzia partziala da (% 5).

- Hezkuntza Departamentua: Atal honen edukiak 19 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 12tan,

gutziko korrespondentzia dago euskaraz (% 68); atal batean, berriz, korrespondentzia partziala da (% 5).

- Osasun Departamentua: Atal honen edukiak 22 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 12tan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 54); 2 ataletan, berriz, korrespondentzia partziala da (% 9).

- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua: Atal honen edukiak 21 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 10etan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 47); 2 ataletan, berriz, korrespondentzia partziala da (% 10).

- Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua: Atal honen edukiak 20 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 9tan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 45); 2 ataletan, berriz, korrespondentzia partziala da (% 10).

- Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua: Atal honen edukiak 20 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 8tan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 40); 2 ataletan, berriz, korrespondentzia partziala da (% 10).
- Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua: Atal honen edukiak 18 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 7tan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 38); 2 ataletan, berriz, korrespondentzia partziala da (% 11).
- Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua: Atal honen edukiak 17 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 7tan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 41); atal batean, berriz, korrespondentzia partziala da (% 6).
- Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua: Atal honen edukiak 19 orri biltzen ditu gaztelaniaz; horietako bakarrean

ere ez dago ez guztizko korrespondentziarik ez korrespondentzia partzialik euskaraz.

- Aktualitatea:

- Atal honen edukiak 69 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 33tan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 48); 6 ataletan, berriz, korrespondentzia partziala da (% 8).

b) Nafarroako Gobernuak eskaintzen dituen on line zerbitzuak gaztelaniaz baizik ezin dira erabili. Hori dela eta, hautu hori egin duten herritarrak ezin zaizkio euskaraz zuzendu Foru Komunitateko Administrazioari, eta ezin dute hizkuntza hori erabili zerbitzu horiek eskuratzeko. Hala eta guztiz ere, Foru Komunitateko Administrazioak jakitera eman du zerbitzuetatik % 4,15 euskaraz izapidetu ahal direla.

B) 2011ko irailaren 15ean, honakoa da Nafarroako Gobernuaren webguneko edukiei buruz eginiko analisia, laugarren mailaraino eginikoa:

- Nafarroa:

- Atal horretako edukia eskuragarri dago, kasu gehienetan, gaztelaniaz eta euskaraz, edizio bereizietan. Gaztelaniaz dauden 74 orrietatik (“beste entitate batzuei” buruzko informazioa kontuan izan gabe), 59tan euskarazko korrespondentzia guztizkoa da (% 80), eta hiru ataletan korrespondentzia partziala dago (% 4).
- Euskarazko edizioko orrietan esteka batzuk badaude gaztelaniazko edizioko orrietara bidatzen dutenak; horrenbestez, orri horiek ez daude euskaraz.

- Gaiak:

- Atal honen edukiak 330 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 109tan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 33); 18 ataletan, berriz, korrespondentzia partziala da (% 5).
- Euskarazko edizioko orrietan esteka batzuk badaude gaztelaniazko edizioko orrietara

bidatzen dutenak; horrenbestez, orri horiek ez daude euskaraz.

- Eduki batzuen euskarazko bertsioa laburragoa da gaztelaniazko bertsioa baino.

- Gobernua:

- Atal honen edukiak 55 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 18tan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 32); atal batean, berriz, korrespondentzia partziala da (% 2). Atal horretan, ez da sartu Nafarroako Gobernuko departamentuei buruzko informazioa.
- Euskarazko edizioko orrietan esteka batzuk badaude gaztelaniazko edizioko orrietara bidatzen dutenak; horrenbestez, orri horiek ez daude euskaraz.
- Departamentuetako edukiak: Nafarroako Gobernuko departamentuen egitura berriko eduki berekiak gaztelaniaz daude soilik. Gainera, informazioa web maparen bitartez eskuratu nahi

denean, ikusten da departamentuen antzinako egiturako edukiak oraindik ere hor daudela, euskaraz eta gaztelaniaz.

- Aktualitatea:

- Atal honen edukiak 64 orri biltzen ditu gaztelaniaz; 40tan, guztizko korrespondentzia dago euskaraz (% 62); 4 ataletan, berriz, korrespondentzia partziala da (% 6).

- *Eskaintzen diren on line zerbitzuetatik ia guztiak gaztelaniaz baizik ezin dira eskuratu.*



5

APLIKATZEKOA DEN LEGE
ESPARRUA



**Defensor del Pueblo
de Navarra**

Nafarroako Arartekoa

5. APLIKATZEOA DEN LEGE ESPARRUA.

Txosten honetan aipatzen den gaien, Nafarroako Parlamentuaren bi foru lege dira aplikatzekoak: alde batetik, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea; eta, bestetik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legea.

57

Euskarari buruzko Foru Legearen xedea da euskararen erabilera normala eta ofiziala arautzea bizikidetasun sozialeko eremuetan. Foru legearen funtsezko helburuen artean, besteak beste, herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babesteari dagokiona dago (1. artikulua). Eskubide hori 6. artikuluan ere aipatzen da. Artikulu horrek, izan ere, herritar guztiei aitortzen die euskara administrazio publikoekiko harremanetan erabiltzeko eskubidea, legeak berak ezarritako moduan. Eskubide hori, eremu euskaldunean, honela zehaztuta dago: herritarrek eskubidea dute hizkuntza hori erabiltzeko administrazio publikoekiko harremanetan, eta eskubidea dute, halaber, hizkuntza horretan arreta jasotzeko, hura hautatzen badute. Administrazio horien betebeharra da neurri egokiak hartzea eta beharrezko gerta daitezken

bitartekoak erabakitzea eskubide horren mailaz mailako erabilpena bermatzeko (10.1 artikulua). Ereku mistoan eta eremu ez-euskaldunean, herritarrek eskubidea dute (herritar guztiek) euskara erabiltzeko Nafarroako administrazio publikoetara jotzeko garaian (17. eta 18. artikulua). Alabaina, azken eremu horretan, Administrazioak interesdunei gaztelaniazko itzulpena eskatu ahal dizkie edo itzulpen ofizialeko zerbitzuak erabili ahal ditu (18. artikulua).

Bestalde, Nafarroak Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeak bilatzen du erantzun integrala ematea herritarrek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekiko harremanetan, teknologia berrietatik egiten duten erabilpen gero eta handiagoari.

Funtsezko xede gisa, foru legeak bilatzen du herritarren zerbitzuko administrazio elektronikoa eraginkorra “ezartzea”. Kontzeptu hori, funtsean, lotzen da bide elektronikoen bitartez zerbitzu publikoak emateko aukerarekin, hartara, herritarrek, Nafarroako atariaren (www.navarra.es) bitartez Foru Komunitateko Administrazioari buruzko informazio guztia eskuratu ahal dezaten eta zerbitzuak bide elektronikotik izapidetu ahal ditzaten.

egon behar du erabilgarri, bi edizio berezietan, herritar bakoitzak egokien jotzen duena erabil dezan. Horixe ezarri zuen apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeko 42.3 artikulua. Xedatutako hori, halere, ez da eragozpena izanen egokitze hori mailaz maila egitearen irizpidea aplikatzeko.

Ataria ezarri da etengabeko sarbidea bideratuko duen tresna baten eta herritarrentzako doako tresna baten gisara, eta haren xedea da herritarrei sarbidea ematea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzu desberdinetara. Esate baterako: Nafarroako Aldizkari Ofiziala, Foru Komunitateko xedapenak, Administrazioaren egitura organikoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak, eskaintzen dituen zerbitzuen katalogoa, euskarri elektronikoan eskuragarri dauden zerbitzuak, funtzio publikoarekin lotutako deialdiak, diru-laguntza publikoak eta abar.



6

ONDORIOAK,
GOGORARAZPENAK
ETA IRADOKIZUNAK



**Defensor del Pueblo
de Navarra**

Nafarroako Arartekoa

6. ONDORIOAK, GOGORARAZPENAK ETA IRADOKIZUNAK.

Txosten hau egin ondoren, ondorioztatu dugu gaur egun (txosten hau ixteko datan), Nafarroako Gobernuaren web zerbitzuen atarian:

- a) Bi edizio bereizirik daude, bata gaztelaniaz eta bestea euskaraz.
- b) Euskaraz ematen den informazioa ez dator bat, zabalerari eta sakontasunari dagokienez, gaztelaniaz ematen denarekin, euskarazko informazioa urriagoa baita.
- c) Alabaina, informazio orokor batzuetan antzematen da informazioa gaztelaniaz eta euskaraz aldi berean argitaratzen dela.
- d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eskaintzen dituen on line prozedura elektronikoko edo izapideetatik (2011ko urriaren 3an, 967 izapide eskaintzen ziren on line, eta etxetik egin ahal ziren) ia guztiak gaztelaniaz baizik ez dira ageri.

e) Prozedura administratibo elektroniko edo on line zerbitzu horien bidez Foru Komunitateko Administrazioarekin euskaraz harremanak eduki nahi dituzten herritarrek ezin dute halakorik egin gaztelaniaz harremanak edukitzea hautatzen duten herritarren baldintza berdinekin.

Azaldutakoa dela eta, erakunde honek egokitzen jotzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde publikoei honako legezko betebeharren gogorazpenak eta iradokizunak egitea (horietako batzuek erakunde honek lehenagotik egin dituen gomendio era iradokizunen ildo berekoak dira):

A) Gogorazpenak:

Lehenengoa: Gogoraztea, prozedura administratibo elektronikoak direla eta, administrazioarekiko harremanetarako herritarrei euskara erabiltzeko legez aitortu zaien eskubidea eraginkor egiteko betebeharra duela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, gaztelania erabiltzeko baldintza berdinetan.

Bigarrena: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari gogoraraztea, Nafarroako eremu euskalduneko herritarrei administrazioarekiko harremanetan euskaraz arreta jasotzeko legez aitortu zaien eskubidea eraginkor egiteko betebeharrak duela, prozedura administratibo elektronikoak direla eta, hain zuzen ere harreman horietarako hizkuntza hori hautatzen dutenean.

Hirugarrena: Gogoraraztea Nafarroako Gobernuaren web zerbitzuen atariko edukiak euskaraz eskaintzeko legezko betebeharrak dagoela, edizio bereizietan, hizkuntza hori hautatu nahi duten herritarrek hura hautatu ahal dezaten; hori, halere, ez da eragozpena izanen edizio horren egokitzea mailaz maila egin dadin. Mailaz maila egite hori ezin da arrazoi orokor gisa erabili herritarrek harremanak euskaraz edukitzeko –harreman horiek gaztelaniaz dituztenen baldintza berdinetan– daukaten eskubidearen erabilpena eragozteko, zailtzeko edo baldintzatzeko.

B) Iradokizunak:

Lehenengoa: Oro har, Nafarroako Gobernuko web atarian euskaraz dagoen informazioa osatzea, halako moduz non

webguneko gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak, mailaz maila, bat etorriko baitira.

Bigarrena: Bereziki, gutxienez ere eremu euskalduneko herritarrentzat garrantzitsuenak diren edo interes sozial handiena duten informazioak eta albisteak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren jardueran sortzen direnak, bai eta berariaz eremu euskaldun horretako udalei buruzkoa den informazioa ere, web atariaren euskarazko bertsioan argitaratzea gaztelaniazko edizioan argitaratzen diren luzera eta sakonera berarekin, eta argitalpen hori aldi berean egitea, Nafarroako eremu horretan bi hizkuntzen koofizialtasunaren printzipioa gauzatze aldera.

Hirugarrena. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak plangintza bat egitea, helburuak eta helburu horiek betetzeko denboraren programazioa zehazturik, Nafarroako Gobernuaren web atariaren edukia euskaraz egon dadin.

Laugarrena: Neurri eraginkorrak ezartzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari edo haren erakunde publiko-
ei prozedura administratibo elektronikoak erabiliz euskaraz zuzendu nahi zaizkien herritarrei hori modu eraginkorrean egin ahal dezaten, eta eremu euskalduneko herritarren

kasuan, herritar horiei, gainera, hizkuntza horretan arreta eman dakien, hain zuzen ere prozedura administratibo elektronikoko horietan.

67

Bosgarrena: Bereziki, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde publikoek web atariko zerbitzuen atalrik herritar guztiei gaztelaniaz eskaintzen dizkieten on line izapideak, euskaraz modu berean eskuragarri ere jartzea. Zehazki, iradokitzen dugu has dadila herritarrek gehien eskatzen edo erabiltzen dituzten on line zerbitzuak edo izapideak euskarara egokitzen, edo, bestela, zailtasun tekniko apalena duten zerbitzuak edo izapideak egokitzen, edo, bestela ere, euskaraz argitaratzen eragozpen handirik gabe egokitu daitezkeen izapideen informazioak edo atalak (esate baterako, aurkezpen, dokumentazio eta izapidetzei buruzko orriak, harremanei buruzko orriak eta abar).



1 ERANSKINA

SERBITZUEN CATALOGOA

EUSKARAZ



**Defensor del Pueblo
de Navarra**

Nafarroako Arartekoa

DEPARTAMENTUA	ZUZENDARITZA NAGUSIA	ZERBITZUA	Guztira
EKONOMIA ETA OGASUNA			
	Nafarroako Zerga Ogasunaren erakunde autonomoa	2009ko eta hurrengo errenta aitortzenarako proposamenen berri jasotzeko modua aukeratzea	1
		Aitorpenak inprimatzea	1
		Aitorpenaren proposamena zein hizkuntzatan egin	1
		Datu fiskalak lortzea	1
		Helbidearen eta datu pertsonal edo familiakoen aldaketak (030)	1
		Pasahitza gestionatzea	1
